

# Grial Santuetako bat lapurtu dute

NATHANIEL DANCE-HOLLAND



**Uztaileko bigarren astean Nanteos Kopa lapurtu zuten Ingalaterran. Adituek XV. mendekoa dela diote eta, beraz, mirariak mirari, ez dirudi Jesussek azken afarian erabilitako kaliza denik.**

INGALATERRA, 1533. Henrike VIII.a Anne Boleynekin ezkondu zen Eliza Katolikoaren baimenik gabe. Orduan, parlamentuak Aita Santuaren aginpidea deuseztatu zuen eta erregea buru zuen Eliza Anglikanoa sortu zen. Henrikek abadetxe katolikoaren aurkako jazarpen kanpaina abiatu zuen, ahalezko erresistentzia gunetzat baitzituen.

1539an, Glastonburyko abadeak monasterioko ondasun preziatuena hartu eta hainbat fraiderek batera ihes egin zuen, erregearen mandataria iritsi baino lehen. Hasieran, Cardiganshireko Strata Florida abadetxeak eman zien babesa fraide iheslariei. Baina erregearen atzaparrak bertaraino luzatzear zeudela, berriro alde egin behar izan zuten. Galeseraino joan ziren eta Powell familiak Nanteos etxaldean eman zien aterpe fraideei eta zeramaten altxorrari. Altxor hura, berez, olibondo egurrez egindako edontzi zati bat baino ez zen. Kontua da Jesukristok azken afarian kopa horretatik edan omen zuela eta hura hil ondoren Arimateako Josek Britainiara eraman omen zuela. Grial Santua zela, alegia.

Nanteos Kopa –hala esaten zaio– izen bereko etxaldean geratu zen mendetan, eta erromesaldi gune bilakatu zen ia, egur puskak sendatzeko ahalmena omen duelako. Azken urteetan kopa Steadman sendiaren eskutetan egon da, banketxe bateko kutxa gotorrean gordeta. Baina berriki, ontziak sendatze jarduerari

heldu dio berriro, eta uztaila hasiera arte gaixo dagoen emakume baten etxean egon da, Weston-under-Penyard herrian (Herefordshire, Ingalaterra). Itxuraz, kopak ez zuen emakumearen osasunean eraginik izan eta ospitalera eraman behar izan zuten. Emakumea, ez kopa.

Jabea kanpoan zela baliatuta, lapurrak emakumearen etxera sartu ziren uztailaren 7a eta 14a bitartean eta Nanteos Kopa ostu zuten. Orduz geroztik West Mercia poliziak, film epiko bateko protagonistak bairliran, Grial Santuaren bila dabiltza, ustezko Grial Santuaren bila, behintzat. Izan ere Nanteos Kopa aztertu duten adituek XV. mendean datatu dute pieza. Henrike VIII.aren jazarraldia baino mende bat lehenago, eta Jesus Nazaretekoak azkenekoz afaldu eta 1.400 urtera.

Erdi Arotik baxera zabala osatzeko moduko orotariko ontzi, kopa, plater, katilu eta azpilak izendatu dituzte Grial Santu: O Cebeiroko Grial Santua, Antokiako kaliza, Genoako *Sacro Catino* katilua, Ardagheko kaliza, Hawkstone Parkekoa... Eta baxeran pieza bat falta izanez gero, ziur berehala beste batek ordezkatzeko duela. Urrutira joan gabe, joan den martxoan Margarita Torres eta Jose Miguel Ortega del Río historialariek benetako Grial Santua Doña Urracaren kaliza dela eta Leongo San Isidoro kolegiatan ikusgai dagoela jakinarazi ziguten. ■



## Arrastoak

### Vietnamgo Gerra ez da bukatu Laosen

VIETNAMGO GERRAN AEBek 200 milioi tona bonba jaurti zituzten Laosen, eta horrenbestez Asiako estatu horrelk inoizko herrialde bonbardatuenaren marka tristea hautsi zuen: 833 kilo biztanleko. 1964an, bonbardaketak hasi zirenean, Laosek neutraltasuna aldarrikatu zuen, baina AEBen erasoak ez ziren eten. Orotara 270 milioi barreiatze-bonba bota zituzten, baina horietatik %30ek (80 milioi lehergailu) ez zuten eztanda egin. Ondorioz, 1964tik 30.000 laostar hil dira ezteandek eraginda; 12.000, gatazka amaitu zenetik..

2013an barreiatze-bonbek hamabi hildako “soilik” eragin zituzten Laosen, gerra amaitu zenetik kopururik txikiena. Uxo Lao izeneko gobernuko erakundeak joko bat asmatu du hurrek bonbak bereizten ikas dezaten eta bateren bat topatzu gero nola jokatu jakin dezaten. Baina kanpainaren emaitzak ez dira oraindik nabarmenak, 2014 honetako lehenei hilabeteetan hildako kopuruak dagoeneko dozena gainditu baitu. ■

ANDREW MCCONNELL



**6 urteko haur honek ezkerreko begia galdu zuen barreiatze-bonba batek eztanda egin zionean.**